

**EUSKARABIDEA – EUSKARAREN NAFAR  
INSTITUTUAREN ETA TOPAGUNEA -  
EUSKARA ELKARTEEN FEDERAZIOAREN  
ARTEKO HITZARMENA 2021. URTEAN  
“EUSKARAK 365 EGUN - EUSKARALDIA”  
PROGRAMA GARATZEKO.**

**A) XEDEA**

Hitzarmen honen xedea da oinarri orokorrak ezartzea Nafarroako Foru Komunitatean, 2021. Urtean, “Euskarak 365 egun - Euskaraldia” programa garatu ahal izateko.

“Euskarak 365 egun - Euskaraldia” urte bateko programazioa da hitzunen hizkuntza ohiturei eragiteko helburu nagusia duena, zeina ekimenari atxikitzen diren herri guztietan eginen den.

2021eko hitzarmenean, Topaguneak garatuko duen “Euskarak 365 egun - Euskaraldia” ekimenari dagozkion, eta Nafarroako Foru Komunitatean izanen diren honako hauek finantzatuko dira: koordinazioa, ekimena gizarteratzea, sentsibilizazio kanpaina eta tailerrak, sustapena entitateetan, sustapena herrietan eta mugarri publikoetara loturiko ekitaldiak.

**B) ZIOEN AZALPENA**

Erakunde biek azaltzen dute:

1. Euskararen erabilera sustatzea dutela helburu komuna eta elkarren beharra dutela erabileran eragiteko “Euskarak 365 egun - Euskaraldia” izena duen eskuhartze proiektu espezifiko eta integralaren bitartez, besteak beste.
2. Alde biek, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuak eta Topagunea Euskara Elkartearen Federazioak ezagutzen eta onesten dutela Nafarroako Foru Komunitatean indarra duten lege esparrua, gaitasuna ematen diena bi aldeei hitzarmen hau sinatzeko eta hitzarmenaren zainahi ekimen osagarri garatzeko.

**CONVENIO ENTRE EUSKARABIDEA –  
INSTITUTO NAVARRO DEL EUSKERA Y LA  
ASOCIACIÓN FEDERACIÓN TOPAGUNEA  
PARA DESARROLLAR EL PROGRAMA  
“EUSKARAK 365 EGUN - EUSKARALDIA”  
EN EL AÑO 2021.**

**A) OBJETO**

El presente Convenio tiene por objeto establecer las bases generales con el fin de posibilitar el desarrollo en la Comunidad Foral de Navarra del programa “Euskarak 365 egun - Euskaraldia” durante el año 2021.

“Euskarak 365 egun - Euskaraldia” es una programación anual con el objetivo principal de incidir en el uso de los hablantes, y se desarrollará en todos los núcleos poblacionales que participen en la iniciativa.

En el convenio del 2021 se financiará la iniciativa “Euskarak 365 egun - Euskaraldia”, a desarrollar por Topagunea, en lo que respecta a la coordinación, divulgación de la iniciativa, campaña y talleres de sensibilización, las actividades de fomento en las poblaciones y entidades y los actos públicos relacionados con los hitos de la iniciativa en la Comunidad Foral de Navarra.

**B) EXPOSICIÓN DE MOTIVOS**

Ambas instituciones exponen:

1. Que comparten el objetivo de promover el uso social del euskera y que se necesitan mutuamente para poder materializarlo a través del proyecto de intervención específico e integral “Euskarak 365 egun - Euskaraldia”.
2. Que ambas partes, Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera y la Asociación Federación Topagunea, reconocen y aceptan el marco legal vigente en la Comunidad Foral de Navarra, que sustenta y posibilita la capacidad de las partes para la firma de este convenio, y para el desarrollo de cuantas iniciativas lo complementen.

### C) INDARREKO ARAUDIA

Hitzarmena lege xedapen hauen arabera arautuko da:

1. 11/2005 Foru Legea, azaroaren 9koa, Dirulaguntzei buruzkoa.

2. Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea.

1.2 artikuluan ezartzen dira legeraren ezinbesteko helburuak: Herritarrek euskara jakin eta erabiltzeko duten eskubidea babestea eta hori betetzeko tresnak zehaztea; euskararen berreskurapena eta garapena begiratzea Nafarroan, euskararen erabilera sustatzeko neurriak adieraziz, eta euskararen erabilera eta irakaskuntza bermatzea, borondatezkotasun, mailakatze eta errespetu irizpideei jarraikiz, Nafarroako errealitate soziolinguistikoaren arabera.

3. Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren Estatutuak onetsi zituen azaroaren 6ko 303/2019 Foru Dekretua. Horren arabera, aipatutako erakundeari dagozkion eginkizunen artean dago euskara bizitza sozialeko esparruetan agertu eta erabiltzeko informazio- eta sentsibilizazio-programak gauzatzea eta helburu hori bera duten entitate publiko eta pribatuekin lankidetzan aritzea.

4. 2019-2023 legealdiko Nafarroako Gobernurako Programa Akordioa.

Besteak beste, honakoa aurreikusten du: Erakunde publikoekin eginiko lankidetzahitzarmenei jarraitutasuna eman, edo, dagokion kasuetan, arlo publikoarekiko modu subsidiarioan, euskararen arloan erantzukizuna duten gizarte-entitateekin eginikoei.

5. "Hiruko Ituna", Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren, Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuaren Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren, eta Euskararen Erakunde Publikoaren arteko euskararen sustapenari buruzko lankidetzahitzarmena.

### C) NORMATIVA APLICABLE

El presente Convenio se regirá de acuerdo a las siguientes normas legales:

1. Ley Foral 11/2005, de 9 de noviembre, de Subvenciones.

2. La Ley Foral 18/1986, de 15 de diciembre, del Euskera.

En su artículo 1.2 establece los objetivos esenciales de esta ley: Amparar el derecho de los ciudadanos a conocer y usar el euskera y definir los instrumentos para hacerlo efectivo; proteger la recuperación y el desarrollo del euskera en Navarra, señalando las medidas para el fomento de su uso, y garantizar el uso y la enseñanza del euskera con arreglo a principios de voluntariedad, gradualidad y respeto, de acuerdo con la realidad sociolingüística de Navarra.

3. El Decreto Foral 303/2019, de 6 de noviembre, por el que se aprueban los Estatutos del organismo autónomo Euskarabidea - Instituto Navarro del Euskera. Se asigna a Euskarabidea, entre otras, la función de realizar programas de información y de sensibilización sobre el euskera y su uso en los distintos ámbitos de la vida social, así como colaboración con entidades públicas y privadas con este mismo objeto.

4. El Acuerdo Programático para el Gobierno de Navarra de la legislatura 2019-2023. Se destaca la necesidad de dar continuidad a los convenios de colaboración con instituciones públicas y/o en su caso, de manera subsidiaria a lo público con aquellas entidades sociales con responsabilidad en el euskera.

5. "Hiruko Ituna" el convenio específico de colaboración en materia de fomento del euskera entre el Departamento de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco, Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera del Gobierno de la Comunidad Foral de Navarra, y la Oficina Pública del Euskera.



3.1. puntuan, euskararen aldeko sentsibilizazioa eta sustapenari buruzkoa, honakoa aurreikusten da: 3 partaideek "Euskaraldia" egitasmoan parte hartzea, bereziki egitasmoaren Koordinazio Batzordean parte hartuz.

6. 2021eko aurrekontu orokorrak.  
Honako izen hau duen diru-saila aurreikusten da, 130.000 euroko funtsa duena: "Topagunea Euskara Elkartearen Federazioarekiko hitzarmena/ Convenio con la Asociación Federación Topagunea Euskara Elkartearen Federazioa". Lerroaren xedea da hitzarmena sinatzea Topagunearekin "Euskarak 365 - Euskaraldia" programa garatzeko.

#### D) HITZARMENAREN IRAUPENA

Hitzarmen hau sinatzen den egunean indarrean sartuko da eta indarraldia 2021eko abenduaren 31n amaituko da.

Diruz lagungarriak diren gastuak 2020ko azaroaren 21etik 2021eko azaroaren 20 bitarte sortutakoak eta ordaindutakoak izanen dira.

#### E) AURREKONTUA

2021erako aurrekontua 130.000 eurokoa (BEZ barne) izanen da, Nafarroako Gobernuaren 2021eko Aurrekontu Orokorren "Topagunea Euskara Elkartearen Federazioarekiko hitzarmena/Convenio con asociación Federación Topagunea Euskara Elkartearen Federazioa" izeneko B30002 B3200 4819 334103 kontu-sailaren kargura.

#### F) LAGUNDUKO DIREN JARDUERAK

2021ean diruz lagunduko diren ekintzak honako hauek izanen dira:

##### 1. Koordinazioa

Foroen dinamizazioa eta gidaritza Euskarabidearekin, udaletako euskara teknikariek, Koordinazio Mahaia Orokorrarekin, beste lurraldetako eragileekin, Nafarroako eskualde eta herri mailako batzordeekin eta entitateekin. Aholkularitza zerbitzu etengabea ere eginen da.

En el punto 3.1. del convenio, dedicado a la sensibilización a favor del euskera y su fomento, se contempla la participación en "Euskaraldia y que las tres entidades participen en la Comisión de Coordinación de dicho proyecto.

6. Los Presupuestos Generales de Navarra de 2021.

Se establece la partida nominativa "Topagunea Euskara Elkartearen Federazioarekiko hitzarmena/ Convenio con la asociación Federación Topagunea Euskara Elkartearen Federazioa", con un saldo de 130.000 euros, para la firma de un convenio con el fin de desarrollar el programa "Euskarak 365- Euskaraldia".

#### D) PLAZO DE DURACIÓN DEL CONVENIO

La vigencia del presente Convenio será desde el momento de la firma hasta el 31 de diciembre de 2021.

Serán gastos subvencionables los generados y satisfechos entre el 21 de noviembre de 2020 y el 20 de noviembre de 2021.

#### E) PRESUPUESTO

El presupuesto para el año 2021 será de 130.000 euros (IVA incluido), con cargo a la partida B30002 B3200 4819 334103 denominada "Topagunea Euskara Elkartearen Federazioarekiko hitzarmena/Convenio con la Asociación Federación Topagunea Euskara Elkartearen Federazioa" de los Presupuestos Generales de Navarra de 2021.

#### F) ACTIVIDADES A SUBVENCIONAR

En el convenio de 2021 se subvencionarán las siguientes actividades:

##### 1. Coordinación

Guía y dinamización de los foros con Euskarabidea, la Mesa General de Coordinación, con el personal técnico municipal, con los promotores de otras provincias, con los comités comarcales y locales de Navarra y con las distintas entidades. Se incluye el servicio de asesoramiento continuado.



## 2. Ekimena gizarteratzea

Ikus entzunezkoak sortu eta gizarteratu; euskarriak diseinatu, ekoiztu eta gizarteratu; dokumentala sortzea eta zabaltzea, eta Nafarroako Foru Komunitatean eginen den komunikazio-kanpaina diseinatzea eta egitea.

## 3. Sentsibilizazioa

Erdaldunentzako sentsibilizazio tailerraren diseinua; erdaldunentzako sentsibilizazio tailerrak ematea eta jardunaldien diseinua eta koordinazio ekintzak.

## 4. Sustapena entitateetan

Entitateen Foro Orokorrak garatzea; entitate desberdinekin foroak egitea, eta entitateen dinamikaren jarraipena eta aholkularitza etengabea ematea, lehenetsuneko entitateak identifikatu eta haiei lanketa berezia proposatzea. Herri batzordeei etengabeko aholkularitza entitateekin lanketa egin dezaten.

## 5. Sustapena herrietan

*Gehiago, gehiagorekin, gehiagotan* dokumentalaren bira eta balorazio saioa; 2021-2022 edizioaren aurkezpen eta kontrastatze saioa; Nafarroako batzordeen Foro Orokorra; Herri Batzordeen koordinazioa eta aholkularitza etengabea eta pertsonalizatua.

## 6. Mugarri publikoak

Dokumentalaren aurkezpen publikoa; jardunaldien gauzapena: web orrialdea, argitalpena, komunikazio ekintzak...

Ekimen bateratu deszentralizatua egitea: komunikazioa, koordinazioa, materiala produzitzea...

Ekitaldi Zentralea: produkzioa, komunikazioa, emanaldiak...

## **G) JARRAIPIEN BATZORDEA**

Hitzarmen hau sinatzen den unean jarraipen batzorde bat eratuko da. Batzorde horretako kide izanen dira Euskarabide-Euskararen Nafar Institutuaren ordezkariak eta Topagunearen ordezkariak.

Euskarabidearen izenean:

## 2. Divulgación de la iniciativa

Creación y divulgación de audiovisuales; diseño, producción y divulgación de soportes; producción y seguimiento del documental, diseño y aplicación de la campaña de comunicación en la Comunidad Foral de Navarra.

## 3. Sensibilización

Diseño de taller de sensibilización para las personas no vascoparlantes; impartir talleres de sensibilización para las personas no vascoparlantes y diseño de jornadas y acciones de coordinación.

## 4. Promoción en entidades

Desarrollar los Foros Generales de Entidades, foros con entidades y seguimiento y asesoramiento de la dinámica de todas las entidades participantes, identificación y propuesta específica de colaboración con las entidades prioritarias de Navarra. Asesoramiento permanente a las comisiones populares para que faciliten el trabajo a realizar con las entidades.

## 5. Promoción en las poblaciones

Gira del Documental *¿Más, con más, más frecuentemente?*; sesión de presentación y contraste de la edición 2021-2022; foro general de las comisiones de Navarra y coordinación de los comités locales, además del asesoramiento personalizado y continuo.

## 6. Hitos públicos

Presentación Pública del Documental; realización de las jornadas: página web, publicación, acciones de comunicación.

Iniciativa conjunta descentralizada: comunicación, coordinación, producción de material.

Acto Central: producción, comunicación, retransmisiones...

## **G) COMISIÓN DE SEGUIMIENTO**

En el momento de la firma de este Convenio se formará una Comisión de Seguimiento que estará formada por representantes de Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera y representantes de Topagunea.

Por parte de Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera:





- Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzuko zuzendaria, edo ordezkoko izateko berak izendatzen duena. Batzordeko idazkaria izanen da.
- Euskara Sustatzeko Atalburua, edo berak eskuordetzen duena.
- Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzuko teknikari bat, hitza eta botoa dituen.

Topagunearen izenean:

- Nafarroako Topaguneko zuzendaria, edo berak izendaturiko ordezkaria. Batzordekidea izanean da.
- Nafarroako Euskaraldiko koordinatzailea, edo berak izendaturiko ordezkaria. Batzordekidea izanen da.

Jarraipen Batzordea urtean 6 aldiz bederen bilduko da: lehenbizikoa, hitzarmen hau sinatzen denean; bertan, Topaguneak urteko lan programa aurkeztuko du, hitzarmen honen F idatz-zatian zehazturikoaren arabera. Azken bilkura urte bukaeran eginen da, eta bertan urteko memoria aurkeztuko du Topaguneak, onetsia izan dadin.

#### H) DIRULAGUNTZAREN ORDAINKETA

Dirulaguntza bi epetan ordainduko da: Lehenbizikoa, maiatzaren 31ra arte egindako gastuei dagokiena, aldeztu aurretik gastuen ordainketa-agiriak aurkeztuta; eta bigarrena, abenduaren 31 baino lehen, 2021eko azaroaren 20ra arte egindako gastuei dagokiena, dirulaguntzaren indarraldian egindako eta ordaindutako gastuak justifikatu ondoren, azaroaren 24a baino lehen aurkeztu beharrekoa.

Bi ordainketetako bakoitzean ordaindu beharreko zenbatekoa aldi bakoitzean egindako gastuen justifikazio efektiboaren arabera izanen da, eta bi ordainketen baturak ezin izanen du emandako urteko dirulaguntzaren zenbateko osoa gainditu.

#### I) DIRULAGUNTZA JUSTIFIKATZEA

Emanen den dirulaguntza Dirulaguntzen gaineko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeak ezarritako baldintzen arabera justifikatuko da,

- La directora del Servicio de Planificación y Promoción del Euskera, o persona en quien delegue, que actuará como Secretario de la Comisión.
- La Jefa de la Sección de Promoción del Euskera o persona en quien delegue.
- Un/a Técnico del Servicio de Planificación y Promoción del Euskera, con voz y voto.

Por parte de Topagunea:

- El/la directora/a de Topagunea, o un/una representante designado/a por el/la mismo/a, que actuará como Vocal.
- El/la coordinador/a de Euskaldia en Navarra, o un/a representante designado/a por el/la mismo/a, que actuará como Vocal.

La Comisión de Seguimiento se reunirá al menos 6 veces al año: una primera, a la firma del presente convenio, donde Topagunea presentará su Programa Anual de Trabajo a realizar, según lo que se especifica en el apartado F de este convenio, y la última reunión se celebrará al final de año, donde se presentará la Memoria Anual para su aprobación.

#### H) ABONO DE LA SUBVENCIÓN

El abono de la subvención se realizará en dos plazos: el primero, correspondiente a los gastos realizados hasta el 31 de mayo, previa justificación de los mismos; y el segundo, con fecha anterior al 31 de diciembre, para los gastos realizados hasta el 20 de noviembre de 2021, tras la justificación de los gastos realizados y abonados durante la vigencia de la subvención, a presentar antes del día 24 de noviembre.

El importe a abonar en cada uno de los dos pagos dependerá de la justificación efectiva de gastos realizada en cada periodo, sin que la suma de ambos pagos pueda superar el importe total de la subvención anual concedida.

#### I) JUSTIFICACIÓN DE LA SUBVENCIÓN

La justificación de la subvención concedida, según las condiciones establecidas en la Ley Foral 11/2005, de 9 de noviembre, de



ondoren zehazten diren epe eta dokumentuen bidez:

a) Emandako dirulaguntza justifikatzeko dokumentazioa Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuan aurkeztuko da, behar diren bide administratiboak erabiliz, 2021ko ekainaren 15a baino lehen, eta azaroaren 24a baino lehen, epe bakoitzari dagokion ordainketa egin ahal izateko.

b) Langile gastuak justifikatzeko Topaguneko langileek egitasmoari emandako orduak zerrendatuko dira eta horrekin batera nominak, Gizarte Segurantzaren kotizazio agiriak eta PFEZ atxikipenak aurkeztuko dira.

c) Langile gastuak ez diren bestelako gastu zuzenak justifikatzeko, gastu horiek zerrendatuko dira bakoitzari dagozkion xehetasun hauek adierazirik: zenbatekoa eta ordainketa data. Agiri horiekin batera fakturak eta beharrezko jotzen diren frogagiriak, bai eta ordainketa agiria ere, atxikiko dira.

Faktura eta gainerako agiriak modu korrelatiboan zenbakituko dira eta gastuen zerrendan ageri diren hurrenkera berean aurkeztuko dira, BEZa edo bestelako zergak barne hartzen dituztelarik. Jarduera zergen ordainketatik salbuetsirik egonen balitz, hala adieraziko da.

Orobat, diruz lagundutako egitasmoak bukatu ondoren eta dirulaguntza kobratu ahal izateko, Topaguneko, 2021eko ekainaren 15a baino lehen txosten partzial bat aurkeztuko du, non epealdi horri dagozkion gauzaturiko jardueri buruzko xehetasunak emanen dituen, eta azaroaren 24a baino lehen, egitasmoaren oroitidazkia aurkeztuko dio Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuari, ezarritako helburuak bete ote diren ikuste aldera.

Baldin gastuen azkeneko justifikazioa ez bada onartutako aurrekontuaren guztirako zenbatekoa adina, baina, hala ere, onuradunak frogatzen badu dirulaguntzaren xedea bete duela, eta superabitik ez dela izan, ulertuko da onuradunak bete duela dirulaguntza justifikatzearen betebeharra. Dirulaguntza

Subvenciones se realizará en los plazos y mediante los documentos que se relacionan:

a) La documentación justificativa de la subvención concedida será presentada en Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera, por las oportunas vías administrativas, antes del 15 de junio y del 24 de noviembre de 2021 para proceder al abono respectivo.

b) La justificación de los gastos de personal se realizará mediante la presentación de una relación de horas reales dedicadas al proyecto por el personal de Topagunea, acompañada de las correspondientes nóminas, cotizaciones sociales y retenciones de IRPF.

c) La justificación de los gastos directos, distintos de los de personal, se realizará mediante la presentación de una relación numerada de los mismos donde se detallará para cada uno de ellos su importe y fecha de pago. A esta relación se adjuntará las facturas u otro tipo de documentos con valor probatorio equivalente, así como el documento acreditativo de su pago.

Las fotocopias de las facturas y demás documentos justificativos de gasto se deberán numerar de forma correlativa y presentarse en el mismo orden que el que figura en la relación de gastos contemplando, en su caso, IVA o cualquier otro impuesto. En aquellos casos en que la actividad estuviera exenta de impuestos, así se hará constar.

Además, una vez realizados los proyectos subvencionados, y con el fin de proceder al cobro de la subvención, Topagunea presentará a Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera, antes del 15 de junio un informe parcial que detalle las acciones realizadas hasta la fecha y antes del 24 de noviembre de 2021, una memoria final del proyecto, que incluirá la valoración del cumplimiento de los objetivos previstos.

En el caso de que la justificación final del gasto no alcance el importe total del presupuesto aceptado, pero a pesar de ello se acredite por el beneficiario el cumplimiento efectivo del objeto de la subvención y la no existencia de superávit, no se considerará que el beneficiario incumple





ematen duen organoak erabakiko du, nolahi ere, ea gastuen justifikazioa bateragarria den deialdiaren xedea behar bezala gauzatzearekin.

Deialdi honen baitan diruz laguntzen den helburua betetzat emateko, egiaztatu beharko da proposatutako jarduerak bere osotasunean gauzatu direla; horrela izan ezean, jasoko den zenbatekoa gutxitu egingen da, gauzatze-mailarekiko modu proportzionalen gutxitu ere.

### J) GARDENTASUNA BETEBEHARRA

1. Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen 3. c) artikuluan aipatutako entitate pribatuak behartuak daude gardentasun betebeharra betetzera baldin eta, urtebetean, 20.000 eurotik gorako laguntzak edo dirulaguntzak jasotzen badituzte Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura, edo jasotako laguntzak edo dirulaguntzak beren urteko diru-sarrerara guztien %20 edo gehiago badira eta, gutxienez, 5.000 euro.

2. Aurreko atalean ezarritako mugak gainditzen ote diren jakiteko, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak edo haren erakunde publikoek urte naturalean emandako dirulaguntza guztien kopuruak batuko dira. Urte batean baino gehiagotan ordaintzen diren dirulaguntzen kasuan, aurrekontuko ekitaldi bakoitzean emandako kopurua hartuko da kontuan ondorio horietarako, ez guztizko batura. Negozio zifra honako hauetako txikiena izanen da:

- a) Aurreko urteko negozio-zifra.
- b) Hala bada, dirulaguntza ematen den ekitaldian entitatearen organo eskudunak onartutako negozio zifra.

3. Aipatu diren inguruabarrak gertatzeagatik gardentasun betebeharrak dituzten entitate onuradunek jarraian adierazten den informazioa eman beharko dute hilabeteko epean, dirulaguntza emateko ebazpena jakinarazten denetik zenbatzen hasita:

con la obligación de justificación de la subvención; el órgano concedente valorará, en todo caso, si la justificación de los gastos es compatible con la ejecución efectiva del objeto.

Se entenderá que el objeto de subvención de la convocatoria está cumplido cuando se haya acreditado, la ejecución de la totalidad de la actividad propuesta; en caso contrario, la cantidad a percibir se minorará proporcionalmente a dicha ejecución.

### J) OBLIGACIONES DE TRANSPARENCIA

1. Las entidades privadas a que hace referencia el artículo 3 c) de la Ley Foral 5/2018, de 17 de mayo, de Transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno, están sujetas a las obligaciones de transparencia cuando perciban, durante el periodo de un año, ayudas o subvenciones con cargo a los presupuestos generales de Navarra en una cuantía superior a 20.000 euros, o cuando las ayudas o subvenciones percibidas representen al menos el 20% del total de sus ingresos anuales, siempre que alcancen como mínimo la cantidad de 5.000 euros.

2. A los efectos de considerar si se superan los límites cuantitativos establecidos en el apartado anterior, se sumarán las cuantías de todas las subvenciones concedidas por la Administración de la Comunidad Foral de Navarra o sus organismos públicos en el año natural. En el caso de subvenciones cuyo pago se haga en diferentes anualidades, se computará a estos efectos la cantidad concedida en cada ejercicio presupuestario y no la suma total. La cifra de negocio será la que tenga menor importe entre las siguientes magnitudes:

- a) La cifra de negocio del año anterior.
- b) En su caso, la cifra de negocio aprobado por el órgano competente de la entidad en el ejercicio de concesión de la subvención.

3. Las entidades beneficiarias de subvenciones que se encuentren sujetas a la obligación de transparencia al concurrir los supuestos previstos, deberán comunicar en el plazo de un mes contado desde la notificación de la resolución de concesión la información que se relaciona a continuación:





a) Entitatearen gobernu, administrazio eta zuzendaritza organoen osiera.  
b) Organo horiek osatzen dituzten kargudunen zerrenda.  
c) Entitateak aurreko urtean kargudun bakoitzari ordaindutako ordainsari gordinak eta gainerako diru konpentsazioak, kontzeptuz kontzeptu. Sortu berriak diren entitateen kasuan, informazioa izanen da haien aurrekontuetan edo plan ekonomiko-finantzarioan jasotakoa.

d) Gobernu, administrazio eta zuzendaritza eginkizunetan ematen den dedikazioaren araubidea.

e) Entitate onuradunaren urteko azken kontuen kopia bat.

Informazio hori entitate onuradunaren legezko ordezkariak sinatuta aurkeztuko da, Nafarroako Gobernuaren Erregistro Orokor Elektronikoaren bide telematikoa erabiliz, eta dirulaguntza kudeatzen duen administrazio unitateari bidaliko zaio.

Entitateak gardentasun betebeharra bete behar ez badu aurreikusitako inguruabarrak gertatzen ez direlako, horren gaineko aitorpena aurkeztu beharko du.

Entitateak ekitaldi berean dirulaguntza bat baino gehiago jasotzen badu, ez du informazioa errepikatu beharko dirulaguntza bakoitzerako, salbu eta hasieran eman zituen datuak aldatzen badira. Horretarako, entitateak identifikatu beharko du Foru Komunitateko Administrazioaren zein organoren aurrean aurkeztu zuen, eta noiz.

Betebehar hori bete ezean, emandako dirulaguntza ez da ordainduko, ezta aurrerakinak ere, eta kobratutako zenbatekoak itzuli egin beharko dira, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 35.1 c) artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Aurrekoa galarazi gabe, onuradun guztiak behartuak daude unitate kudeatzaileari behar den informazio guztia ematera, aurretiazko errekerimendua eginda eta hamar eguneko epean, frogatzeko betetzen direla maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen II. tituluan jasotako

a) Composición de los órganos de gobierno, administración y dirección de la entidad.

b) Relación de los cargos que integran dichos órganos.

c) Las retribuciones brutas y demás compensaciones económicas percibidas de la entidad en el año anterior por cada uno de los cargos, desglosadas por conceptos. En el caso de entidades de nueva creación la información será la que figure en sus presupuestos o plan económico-financiero.

d) El régimen de dedicación a las funciones de gobierno, administración y dirección de la entidad.

e) Una copia de las últimas cuentas anuales de la entidad beneficiaria.

La información señalada se presentará firmada por el o la representante legal de la entidad beneficiaria de forma telemática a través del Registro General Electrónico del Gobierno de Navarra y se dirigirá a la unidad administrativa que gestiona la subvención.

En el caso de que la entidad no se encuentre sujeta a la obligación de transparencia al no darse los supuestos previstos deberá presentar una declaración en tal sentido.

En el caso de que la entidad sea beneficiaria de sucesivas subvenciones en el mismo ejercicio, no será preciso reiterar la información con ocasión de cada subvención, salvo que hayan cambiado los datos que se facilitaron inicialmente. Para ello, la entidad deberá identificar el momento y el órgano de la Administración de la Comunidad Foral ante el que la presentó.

El incumplimiento de esta obligación impedirá el abono de la subvención concedida, incluidos los anticipos y conllevará, en su caso, el reintegro de las cantidades percibidas, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 35.1 c) de la Ley Foral 11/2005, de 9 de noviembre, de Subvenciones.

Sin perjuicio de lo anterior, todos los beneficiarios estarán obligados a suministrar a la unidad gestora, previo requerimiento y en un plazo de diez días, toda la información necesaria para el cumplimiento por ésta de las





gardentasun betebeharrak (aipatutako foru lege horrek hizpide ditu gardentasuna, informazio publikoa eskuratzea eta gobernu ona).

Errekerimenduan emandako epea bukatzen bada eskatutakoa bete gabe, hertsapen isunak ezartzea erabakitzen ahalko da, 500 eurotik 5.000 eurora bitartekoak, interesdunari ohartarazpena egin ondoren eta entzunaldia emanda. Isuna hamabost egunetik behin errepikatuko da, errekerimendua bete arte. Isunaren zenbateko osoa ez da izanen dirulaguntzaren zenbatekoaren ehuneko bost baino handiagoa. Zenbatekoa zehazteko, ez-betetzearen astuntasuna eta proportzionaltasunaren printzipioa hartuko dira kontuan.

#### **K) DIRULAGUNTZAK ITZULTZEA ETA ZEHAPEN PROZEDURA**

Jarraipenari, itzulketari eta zehapen prozedurari dagokionez, Diru-laguntzen gaineko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeak ezarritakoaren arabera jokatu da, eta zehazki ondokoan ezarritakoaren arabera:

- II. titulua, dirulaguntzak itzultzea, I. kapitulua, itzulketaren gainean, 34., 35., 36. eta 37. artikulua.
- III. titulua, diru-laguntzen jarraipena, I. kapitulua, organo kudeatzaileek egin beharreko jarraipenaren gainean, 38. eta 39. artikulua. II. kapitulua, finantza-kontrolaren gainean, 40. eta 41. artikulua.
- IV. titulua, arau-hausteak eta zehapenak, I. kapitulua, arau-hausteen gainean, 42. artikulua. II. kapitulua, zehapen araubidearen gainean, 43., 44., 45., eta 46. artikulua.

#### **L) DIRULAGUNTZAREN PUBLIZITATEA**

Onuradunak behar bezalako publizitatea emanen dio hartutako dirulaguntzari, onesten den unetik beretik. Ahozko zein idatzizko publizitate bakoitzean jasoko da Nafarroako Gobernuaren parte-hartzea Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren bitartez. Aipamena egingen da Nafarroako Gobernuaren sinbolo ofiziala arautzen duen otsailaren 12ko 8/2020 Foru Dekretuaren jarraibideekin bat

obligaciones de transparencia previstas en el Título II de la Ley Foral 5/2018, de 17 de mayo, de Transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno.

Una vez transcurrido el plazo conferido en el requerimiento sin que el mismo hubiera sido atendido se podrá acordar, previo apercibimiento y audiencia al interesado, la imposición de multas coercitivas de 500 a 5.000 euros. La multa será reiterada por períodos de quince días hasta el cumplimiento. El total de la multa no podrá exceder del cinco por ciento del importe de la subvención. Para la determinación del importe, se atenderá a la gravedad del incumplimiento y al principio de proporcionalidad.

#### **K) REINTEGRO DE LAS SUBVENCIONES Y PROCEDIMIENTO SANCIONADOR**

En cuanto al seguimiento, reintegro y procedimiento sancionador se estará a lo dispuesto en la Ley Foral 11/2005, de 9 de noviembre, de Subvenciones y más concretamente lo dicho:

- En su Título II, Reintegro de las subvenciones, el Capítulo I, del reintegro en los artículos 34, 35, 36 y 37.
- En el Título III, Seguimiento y control de las subvenciones, el Capítulo I, seguimiento por parte de los órganos gestores en los artículos 38 y 39. Capítulo II, Control financiero en los artículos 40 y 41.
- En el Título IV, Infracciones y sanciones, el Capítulo I, Infracciones en el artículo 42. Capítulo II, Régimen sancionador los artículos 43, 44, 45 y 46.

#### **L) PUBLICIDAD DE LA SUBVENCION**

La entidad beneficiaria deberá dar la adecuada publicidad de la subvención concedida desde el inicio de la aprobación de la misma, haciendo constar en cada publicidad oral y escrita la participación del Gobierno de Navarra mediante Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera. Esta mención se hará teniendo como referencia todas las indicaciones del Decreto Foral 8/2020, de 12 de febrero, que regula el símbolo oficial del Gobierno de Navarra y se mantendrá visible



eginda, eta jarduerak irauten duen denbora guztian eutsiko zaio.


### **M) DIRULAGUNTZA BATERAGARRIA IZATEA**

Dirulaguntza hauek bateragarriak dira xede bererako edo beste batendako jaso daitezkeen bestelako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin. Horietako bat lortuz gero, jakin bezain laster, Euskarabideari horren berri eman beharko zaio, betiere, jasotako dirua zertan erabili den erakutsi baino lehen.

Hori hala izanik ere, dirulaguntzen kopurua ez da sekula, bakarka edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin batera, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa izanen.

Iruñean, 2021eko apirilaren 20an

HERRITARREKIKO HARREMANETAKO  
KONTSEILARIA  
LA CONSEJERA DE RELACIONES  
CIUDADANAS



Ana Ollo Hualde

durante todo el espacio de tiempo de difusión de la actividad.

### **M) COMPATIBILIDAD DE LA SUBVENCIÓN**

Esta subvención es compatible con la percepción de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad u otras, cuya obtención se deberá comunicar a Euskarabidea tan pronto como se conozca y en todo caso, con anterioridad a la justificación de la aplicación dada a los fondos percibidos.

No obstante, el importe de las subvenciones a percibir por el beneficiario, en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

En Pamplona, a 20 de abril de 2021

NAFARROAKO EUSKALTZALEEN  
TOPAGUNEAREN ZUZENDARIA ETA LEGEZKO  
ORDEZKARIA /  
EL DIRECTOR Y REPRESENTANTE LEGAL EN  
NAVARRA DE EUSKALTZALEEN TOPAGUNEA



Oskar Zapata Solano



### HITZARMENERAKO AURREKONTUA 2021. URTERAKO

<b>BALIABIDE PERTSONALAK</b>		<b>88.000€</b>	
PROIEKTUAREN ZUZENDARIA: URTE OSOA PROIEKTUAREN TEKNIKARI-KOORDINATZAILEA: URTE OSOA PROIEKTUAREN TEKNIKARIA: URTE OSOA			
<b>EGINKIZUNAK/ ARDURAK</b>	<b>SAIO KOPURUA HURBILPENA</b>	<b>DEDIKAZIOA</b>	<b>ZENBATEKOA</b>
<b>KOORDINAZIOA: GIDARITZA, AHOLKULARITZA...</b>	<b>FOROEN ETENGABEKO</b>	<b>%15</b>	<b>13.200€</b>
FOROAK EUSKARABIDEAREKIN	4-6		
FOROAK UDALETAKO EUSKARA TEKNIKARIEKIN	2-4		
FOROAK BESTE LURRALDETAKO ERAGILEEKIN	8-10		
FOROAK ENTITATEEKIN AHOLKULARITZA JARRAIA	2-4		
<b>EKIMENAREN GIZARTERATZEA</b>		<b>%15</b>	<b>13.200€</b>
EUSKARRIAK ETA IKUS ENTZUNEZKOAK SORTU, EKOIZTU, GIZARTERATU			
DOKUMENTALAREN PRODUKZIO ETA JARRAIPENA			
NAFARROAKO KOMUNIKAZIO PLANA DISEINATU ETA GAUZATU			
<b>SENTSIBILIZAZIOA</b>		<b>%15</b>	<b>13.200€</b>
ERDALDUNENTZAKO SENTSIBILIZAZIO TAILERRAREN DISEINUA			
ERDALDUNENTZAKO SENTSIBILIZAZIO TAILERRA EMAN	4-6		
JARDUNALDIEN DISEINUA ETA KOORDINAZIO EKINTZAK			
<b>SUSTAPENA: ENTITATEAK</b>		<b>%15</b>	<b>13.200€</b>
ENTITATEEN FORO OROKORRAK	1-2		
ENTITATEEKIN FOROAK	6-8		
ENTITATEEN DINAMIKAREN JARRAIPENA ETA AHOLKULARITZA			
<b>SUSTAPENA: HERRIAK</b>		<b>%20</b>	<b>17.600€</b>
DOKUMENTALAREN BIRA + GEHIAGO, GEHIAGOREKIN, GEHIAGOTAN? SAIOA	8-10		
2021-2022 EDIZIOAREN AURKEZPEN ETA KONTRASTATZE SAIOA	8-10		
NAFARROAKO BATZORDEEN FORO OROKORRA	1-2		

HERRI BATZORDEEN KOORDINAZIOA, AHOLKULARITZA...		
<b>MUGARRI PUBLIKOAK</b>	<b>%20</b>	<b>17.600€</b>
DOKUMENTALAREN AURKEZPEN PUBLIKOA		
JARDUNALDIEN GAUZAPENA: WEB ORRIALDEA, ARGITALPENA, KOMUNIKAZIO EKINTZAK...		
EKIMEN BATERATU DESZENTRALIZATUA: KOMUNIKAZIOA, KOORDINAZIOA, MATERIALA PRODUZITU...		
EKITALDI ZENTRALA: PRODUKZIOA, KOMUNIKAZIOA, EMANALDIAK...		

<b>GASTU ZUZENAK:</b>	<b>36.000€</b>
EUSKARRIAK EGOITZAK  BIDEOA  JARDUNALDIAK: ADITUAK: KOMUNIKAZIOA, EKIMEN IREKIA	
<b>FUNTZIONAMENDU GASTUAK ETA JOAN ETORRIAK</b>	<b>6.000</b>
<b>OSOTARA</b>	<b>130.000</b>





**PRESUPUESTO DEL CONVENIO 2021**

<b>GASTO EN PERSONAL:</b>		<b>88.000,00</b>	
DIRECTOR DEL PROYECTO: TODO EL AÑO			
TÉCNICO-COORDINADOR DEL PROYECTO: TODO EL AÑO			
TÉCNICO DEL PROYECTO: TODO EL AÑO			
<b>TAREAS/ RESPONSABILIDADES</b>	<b>Nº SESIONES APROX.</b>	<b>DEDICACIÓN</b>	
<b>COORDINACIÓN: GUÍA DE LOS FOROS Y ASESORAMIENTO.</b>		<b>15%</b>	<b>13.200€</b>
FORO CON EUSKARABIDEA	6-8		
FORO CON LOS TÉCNICOS MUNICIPALES DE EUSKERA	3-4		
FOROS CON LOS PROMOTORES DE OTRAS PROVINCIAS	8-10		
FOROS CON ENTIDADES	2-4		
ASESORAMIENTO			
<b>DIVULGACIÓN DE LA INICIATIVA:</b>		<b>15%</b>	<b>13.200€</b>
DISEÑO, PRODUCCIÓN Y DIVULGACIÓN DE SOPORTES Y AUDIOVISUALES.			
PRODUCCIÓN Y SEGUIMIENTO DEL DOCUMENTAL			
DISEÑO Y DESARROLLO DEL PLAN DE COMUNICACIÓN EN NAVARRA			
<b>SENSIBILIZACIÓN</b>		<b>15%</b>	<b>13.200€</b>
DISEÑO DE UN TALLER DE SENSIBILIZACIÓN PARA LAS PERSONAS NO VASCO PARLANTES			
IMPARTIR TALLERES DE SENSIBILIZACIÓN PARA LAS PERSONAS NO VASCO PARLANTES	4-6		
DISEÑO DE JORNADAS Y ACCIONES DE COORDINACIÓN			
<b>PROMOCIÓN ENTIDADES:</b>		<b>15%</b>	<b>13.200€</b>
FOROS GENERALES DE ENTIDADES	1-2		
FOROS CON ENTIDADES	6-8		
SEGUIMIENTO Y ASESORAMIENTO DE LA DINÁMICA DE LAS ENTIDADES			



<b>PROMOCIÓN EN POBLACIONES</b>		<b>20%</b>	<b>17.600€</b>
GIRA DEL DOCUMENTAL + ¿MÁS, CON MÁS, MÁS FRECUENTEMENTE?	8-10		
SESIÓN DE PRESENTACIÓN Y CONTRASTE DE LA EDICIÓN 2021-2022	10-12		
FORO GENERAL DE COMISIONES DE NAVARRA	1-2		
COORDINACIÓN DE LOS COMITÉS LOCALES, ASESORAMIENTO			
<b>HITOS PÚBLICOS</b>		<b>20%</b>	<b>17.600€</b>
PRESENTACIÓN PÚBLICA DEL DOCUMENTAL			
REALIZACIÓN DE LAS JORNADAS: PÁGINA WEB, PUBLICACIÓN, ACCIONES DE COMUNICACIÓN			
INICIATIVA CONJUNTA DESCENTRALIZADA: COMUNICACIÓN, COORDINACIÓN, PRODUCCIÓN DE MATERIAL			
ACTO CENTRAL: PRODUCCIÓN, COMUNICACIÓN, RETRANSMISIONES			
<b>TOTAL</b>			<b>88.000</b>
<b>GASTOS DIRECTOS:</b>			<b>36.000</b>
SOPORTES •SEDES PARA PRESENTACIONES Y COMPARECENCIAS. •VIDEO DOCUMENTAL •JORNADAS: EXPERTOS: COMUNICACIÓN, • INICIATIVA ABIERTA			
<b>GASTOS DE FUNCIONAMIENTO Y VIAJE</b>			<b>6.000</b>
<b>TOTAL</b>			<b>130.000</b>